

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

334 - 2025eko APIRILA



TXAPELA BURUAN,
MEZUA HELMUGAN!

Turismo jasangarrirantz Plazaolaren bidez

Mendialdeko Aktibazio plana 2023an martxan jarri zen. Ekintza plana eskualdea garatzeko aukeratutako 5 sektore estrategikoetan banatzen da INDUSTRIA, ELIKADURA OSASUNTUA, ENERGIA BERDEAREN INDUSTRIA, MERKATARITZA OSTALARITZA ETA **TURISMO JASANGARRIA**.

Aktibazio planarekin lotuta Plazaola Partzuergo turistikoak prozesu parte-hartzaile bat bultzatu zuen, estrategia turistikoak

diseinatzeko eta datozen urteetarako nahi dugun turismo-eredua definitzeko. Prozesu honen emaitza nagusiak ondorengoak dira:

- ▶ Turismo-eredu jasangarri/iraunkor, irisgarri, inklusibo eta arduratsu baten aldeko apustua.
- ▶ Eskaintza turistikoa dibertsifikatzea, lurraldearen ondarea eta nortasun aberastasuna biltzen dituzten produktu turistikoak sustatuz. Bereziki aipatzen dira: Herri kirolak eta pilota,

euskara, gastronomia, inauteriak eta ondare historiko-arkitektonikoa.

- ▶ Sendotutako produktuak indartzea: zikloturismoa eta natura.
- ▶ Eskualdearen kohesioa: Elkarren beharra dugulako, elkarrekin marka, sarea bultzatu, mugikortasuna, amankomuneko produktuak etab.

Era berean, mugarri interesgarri bat ospatu dugu, **Plazaolaren 30. urteurrena**, non urte hauetan guztietan parte hartu duten bazkide publiko eta pribatu guztiak go-raipatu genituen, batez ere partzuergoa sortu zuten kideak eta denbora honetan lanean aritu diren langileak.

Gainera, iaz Plazaolako bide berdearen azken zatia inauguratu zen, Sarasa eta Iruña lotzen dituen. Horrela, Nafarroako Plazaolaren trenbide zaharreko kilometro guztiak berreskuratu dira. Beraz, nolabait, Partzuergoaren sorrerako helburu nagusi bat beteta dago. Hala ere, mantentze-lanak direla eta, obra ugari daude oraindik 2025 urtean zehar eta kudeaketa eta sustapen lanak behar ditu oraindik ere.

Era berean, bide berdearen berreskuratze lanen amaierak beste lankidetzak gune bat irekitzen du bertan dauden udalekin (Iruña, Berriozar, Iza, Berriobeiti), eta erakundeekin (batez ere Gobernuarekin), eta, horrez gain, gure harremana indartzen du Gipuzkoarekin, Euskadi-Basquetourrekin, Eurovelo 1ekin, Sakana-Arabarekin eta abarrekin.

Horrela, partzuergo turistikoak hainbat **ERRONKARI** egin beharko die aurre etorkizunari begira, gero eta lehiakorragoa den merkatu turistiko batean dugun posizionamendua sendotzeko eta handitzeko.

www.plazaola.eus



Nafarroako Turismo

MAILOPE

• MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esaneren erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Ainhua Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

• ARGAZKIAK:

Ainhua Beraza, Ainhua Mitxaus, Amets Vaca, Argiñe Bildarraz, Araxes Ika Komunitatea, Arnaitz Rubio, Eneritz Urkola, Juan Antonio Garaikoetxea, Julen Buldain, Julen Saralegi, Kirolmank, Libe Martinez, Maitane Azpiroz, Mikel Barberia, Olaia Uharte, Oihane Balda, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Txomin Amundarain.

• MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA


AURKIBIDEA

02 CEDERNA-GARALUR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 MAITE DITUT MAITE Baraibar – Ezantza

8 ERREPORTAJEA “Eskulangintzaren garrantzia, prozesuan datza”. Julen Buldain Rodriguez (Errazkin)



12 BATZARRE

14 ELKARRIZKETA “Larraungo Eguna herritik eta herriarentzat antolatutako ospakizuna da”



18 KULTURA

22 KIROLA “Nire lagunak aizkoran aritzen ziren eta haiek bultzatu ninduten mundu hau ezagutzera”. Txomin Amundarain (Arribe)



28 PLAZATIK PLAZARA “Ikasketak amaitu nituenean, urtebetez Estatu Batuetara joatea erabaki nuen” Amets Vaca Ochoa (Lekunberri)



31 AGENDA




Eneko Eleta Egaña
Apirilaren 9an, 8 urte. Zorionak Eneko! 8! Musu handi bat etxekoen partez!

Aitor Villanueva Oreja
Apirilaren 8an, 3 urte. Zorionak Aitor! Egun bikaina pasa dezazula opa dizugu. Musu handi-handi bat gure etxeko bihurtuorai!

Maren Michaus Landa
Apirilaren 12an, 7 urte. Zorionak, Maren! Oso ongi pasa eta segi beti bezain alaia izaten. Musu handi bat familia guztiaren partez.



Aimar Uranga Gaztelumendi
Apirilaren 4an, 8 urte. Zorionak Aimartxo! Zure barreak, ilusioak eta maitasunak gure bizitza argitzen dute. Pozez, maitasunez eta zorionez betetako eguna opa dizugu! Askok maite zaitugu!



PLAZAOLA BIDE BERDEKO MOZKETAK IBARREAN

Plazaola Partzuergo Turistikoa bide berdea hobetzeko eta birgaitzeko lanetan ari da, eta azken aste hauetan Uitziko geltoki zaharreko atala moz-tuta egonen da. Dirudienez, Larraun eta Lekunberriko ibilbide inguruan berrikuntzak egin dituzte eta lanak hila-bete honetan amaituko dira. Informazio gehiago nahi baduzu sar zaitetz <https://labur.eus/f3islbz1> web orrialdean.



Arazo Bat
Jakinarazi

ARAZO BAT JAKINARAZTEKO GALDETEGIA MARTXAN DA

Lekunberri hobetzen lagundu nahi duzu? Horrela bada, dagoeneko lekunberri.eus webgunean eman dezakezu intzidentzien berri. Bertan gal-detegi bat topatuko duzu eta pauso erraz batzuei jarraituz herria egoera onean mantentzen lagundu dezakezu. Sartu eta jakinarazi, zure laguntza ezinbestekoa da!



ZURE BARATZA HOBETZEN IKASI NAHI DUZU?

Baratzezaintzan hobetzeko eta uza hobetzeko bost orduko formakuntza egin da Lekunberriko Udaletxean. Parte hartzaileek, adituen laguntzarekin, urtaro bakoitzerako teknika egokiak aplikatzen ikasi eta produktibitatea hobetzeko era desberdinak landu zituzten, eta elkarrekin haziak aldatzeko aukera ere izan zuten.

► Libe Martínez de Rituerto (Arribe)



Inauteriak pasatu dira hemengoak ta hangoak jantzi ditugu betaurrekoak, pelukak ta mozerroak egin digu elurra tximiniara egurra baina aurtengoz nahikoa agurtu dugu negua eta agurtu dugu martxoa.

Datorrenari begira orain epeltzen hasi dadila baratzean barazkiak landatu porru eta letxu pila ordua aldatuta eguna luzatu da txoriak kantari mila ongi etorri udaberria ongi etorri apirila.

Doinua: Iparragirre abila dela. Hurrengoa: Izan Zubillaga Irazu (Atallu).

IKURRIN KONTUAK

Laurogeiko hamarraldiaren erdialdeko egun batean, udaberrian, naski, beste bi lagun eta hirurok, Baigorri aldera abiatu ginen Iruñetik, auto partikular txiki batean. Lagun bat gidari, bestea atzean, eta, ni aurrean nindoan, kopilotuaren lekuan, gurpil aulkia atzean, nola edo hala, sartu ondoren, tolestu eta gero.

Esan bezala, Iruñetik atera eta Baigorriara gindoazen, Nafarroaren Eguna ospatzera. Zubiri zeharkatu eta Eugi herria atzean utzi ondoren, pixkanaka-pixkanaka, Urkiaga mendateko gainaren aldera hurbiltzen ari ginen, baina, garai hartan, gaina baino lehenago, guardia zibilen kuarteltxo bat edo antzeko zerbait zegoen. Hara iritsi eta guardia zibil batek, autoa gelditzeko keinua egin zigun; gidariak berehala gerarazi zuen gure ibilgailua.

-Nora zoazte? -guardia zibilak.

-Baigorriara -gure gidariak.

Guardia zibilak, segituan, gure nortasun agiriak eskatu zituen, eta, guk, jakina, azkar asko eskuratu genizkion. Baina, aurrera jarraitu baino lehen, xehetasun bat azaltzea komeni da, istorioa hobeki ulertzeko. Izan ere, zenbait urte lehenagotik, nire nortasun agirian, Espainiako banderaren gainean, nik neronek marraztu eta margotutako ikurrin bat neukan zinta itsasgarritz itsatsita, Espainiako piper-potoa ez ikusteagatik.

Horiek horrela, guardia zibil espainiar hark, nik egindako ikurrina, leku hartan ikusi bezain laster, liztor batek ipurdian ziztatu izan balu bezain suminduta jarri zen. Niregana sutan etorri, autoko atea bortizki zabaldu eta zera agindu zidan biziki haserre:

-Atera hadi hortik istantean, txoropito halakoa!

-Ezin dut -nik, serio-, ikusten duzu hor atzean dagoen gurpil aulki hori, ba, horixe behar dut nik, hain zuzen ere, ibili ahal izateko -azaldu nion, lasai, aulkia seinalatuz-.

Segituan, ahoan eta begietan, egundoko gorroto disimula ezina nabaritu zitzaion, eta, une batez, ematen zuen, ni paparretik hartu eta airean aterako ninduela autotik, amorratio bizian, baina, ez, nonbait ez zen ausartu eta atzera egin zuen, bere gogoari eutsita. Jarraian, lipar batez hausnartu eta honako sermoi antzeko zerbait bota zidan parrastadan, amorru bizian, nire ikurrina nortasun agiritik, mespretxuz desitsatsi eta gero:

-Begira, ergela, ez bestea!, hemendik 500 urtera, balizko kasu batean, Euskal Herriak bere independentzia lortuko balu, orduan ikurrina hire bandera izanen lukek, baina, bitartean, ez, bitartean hire bandera bakarra Espainiakoa duk, hau! -nire nortasun agirikoa erakutsiz, eta, aldi berean, kolpetxo bat emanez, lehenago nortasun agiritik erauzitako ikurrina, paparrean jarri zidan iritsirik, mespretxu aurpegia adierazita-. Ulertu al duk, txepel horrek? Eta ikurrina eraman nahi baduk, eraman ezak hor, paparrean, baina, ez, nortasun agirian, alajainkoa! Tira!, eta orain nahi baduzue, zoazte behingoz Frantzia madarikatu horretara!

Eta, gu, Frantzia madarikatura ez ginen joan, baizik eta Euskal Herritik Euskal Herrira, Baigorriara, alegia, niri, guardia zibil batek ikurrina paparrean jarrita, alajaina!; zer bitxikeriak gertatzen diren batzuetan!

Xant Begiristain Madotz
Auritz. 2021-05-21



TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 - 948 500 166 - CHAPIGO@GMAIL.COM



LEKUNBERRI
TABERNA

948 587 628
lekunberribatena@gmail.com
C/ Arzob, 19 52p
38700 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ LARRAUN
JALMENTA LITAGRAFIA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Erratoldea 19,
Lekunberri



MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillobiki.com
679 938 016

Hurrengoa:

Ilargi Etxarri Santxez (Arruitz)



Olaia Uharte Zubeldia
(Baraibar)

Zergatik aukeratu dut?

Zailtasunik ez duenez, familia zein lagunekin egiteko egokia da. Gainera, Aralarra joateko bide egokia dela iruditzen zait, pistak saihesteaz gain, egun eguzkitsu zein beroetan itzalpean mantentzen delako.

**maite ditut
maite
gure
bazterrak**

Baraibar – Ezantza

Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 4,6km
Desnibela: 430 m
Zailtasuna: erraza



Bidea:

- 1 Ostatuan kotxea utzi eta Galarza III.a Jatetxetik gora 150m igo behar dira, ezker aldera dagoen lehen bidegurutzea hartuz. Epelestra bidea, pista batera heltzean amaitzen da.
- 2 50 metro egin, eskuinetara dagoen bidegurutzea hartu eta 500 metroz bidean aurrera jarraitu behar da pinudiko langa batera, (Larrarte) iritsi arte. Pinudian barneratu eta xendari jarraitu 400 metro igotzean lepo batera iritsiko gara. Bertan, gorantz garamatzen ezker aldeko xenda hartu eta Izarriten agertuko gara.
- 3 Irudian ikusten den bordara hurbildu eta kotxeak ere ibil daitezkeen bidetara jarraituko diogu.
- 4 200 metro egitean bidegurutze bat dago eta bertan ezkerretara jo behar da Beluteko langa eskuinetara utziz.
- 5 150 metro egin ondoren bereziki harritsua den pagadia hasten da, Atakailun. Zati honen hasieran aldapatxo bat badago baina gainontzekoa zelaia goa da.
- 6 Atakailun amaitzean xenda bat sortzen da sartalderuntz. 200 metro egitean Ezantzako langara helduko gara. Langa igaroz gero Aralarrek eskaintzen dizkigun aukera desberdinez goza dezakezu.

●● Julen Buldain Rodriguez (Errazkin)

“Eskulangintzaren garrantzia, prozesuan datza”

Julen Buldain artisau gazteak, txikitatik izan du eskulangintzarekiko zaletasuna. Bere aitonaren tailerrean eman zituen lehen urratsak, eta geroztik, egurra, harria eta metala lantzen aritu da. Eskulangintzak bere bizitzan duen garrantzia ukalezina da, eta denborarekin, teknika eta material berriak lantzen ikasi du. Buldainentzat eskulangintza ez da soilik lan bat, baizik eta adierazpide bat.



Julen Buldain, berak egindako trikitiarekin Argazkiak: Julen Buldain

Bilbon Arte Ederrak ikasi zituen, eskulturan espezializatu zen eta ondoren, eraikuntza metalikoen goi zikloa ere burutu zuen. Ikasketa horiek bere sortzeko ahalmena sakondu dute eta baita trebetasun teknikoa ere, nahiz eta gaur egun arte garaikidearen ikuspegia ez duen bereziki erakargarria sentitzen. Hala ere, hezkuntza artistikoa oso baliotsua izan dela azpimarratzen du, artearen hainbat diziplina ezagutzeko eta bere sormenaren norabidea definitzeko aukera eskaini baitio.

Sormena eta lanbidearen arteko oreka

Hasiera batean, Buldainez ez du eskulangintzatik bizitzeko asmorik izan, baina etorkizunari begira, batek daki... “Ez dut eskulangintzaz bizitzea planteatu, baina etorkizunean ez dut

“Metala lantzea oso erakargarria iruditzen zait”

aukera hori baztertzeko. Sortzeko askatasuna izatea garrantzitsua da niretzat, horregatik nahiago dut nire erritmora lan egin”. Unibertsitate garaian, esperientzia paregabea izan zuen, lau urtez Bilbon bizi izan zen, eta bertan, independentzia pertsonala garatzen ika-

si eta lagun berriak ezagutu zituen. Etiketarik urrun egoteak heldutasun puntu hori eskaini zion, eta ikasketekin batera, bizitzarako hainbat gaitasun garatu zituen. Errazkingoa izanik, egun jaioterrian bizi da, eta inguruko enpresa batean egiten du lan. Hala ere, soldatzaile lanetan aritzeko asmoa ere badu, izan ere, Arriben galargarile moduan egin zituen praktikak, eta oso gustura sentitu zela adierazi du Buldainez. “Metala lantzea oso erakargarria iruditzen zait; gogorra da, baina moldagarritasuna



“Proiektu bat buruan daramadanean, gau eta egun horri buruz pentsatzen aritzen naiz”

ritzan sakontzen ari da, burdina lantzeko teknika berriak ikasiz. Lagun baten bitartez ezagutu du erremontaritzaren mundua, eta burdina lantzeak Buldainen sormenari dimentsio berria eskaini dio. Eskulangintzaren bidez, bere lanak iraunkorak izatea du helburu, eta material bakoitzaren ezaugarriak sakon aztertzen ditu horretarako.

ere badu. Burdinarekin lan egiteak erronka berriak sortzen dizkit, eta hori gustuko dut.”

Sormen prozesua eta materialen aukera

Sormen prozesuari dagokionez, Julen buruari etengabe bueltaka aritzen da. “Proiektu bat buruan daramadanean, gau eta egun horri buruz pentsatzen aritzen naiz. Ez da garatzea soilik, nola gauzatu behar dudun ulertzea beharrezkoa da”. Bere

ideiak planoetan marrazten ditu, eta horrela, aurreikusi daitezkeen arazoei konponbideak bilatzen saiatzen da. Gehienetan autodidakta da eta proiektuen arabera, ikerketa sakonak ere egiten ditu.

Azkenaldian, harria lantzea interesgarria iruditzen zaio, nahiz eta prozesu motela eta zaila izan. “Harriak pazientzia eskatzen du, ezin duzu presarik izan, barneko egitura eta muina ulertu behar dituzu ongi moldatzeko”. Horrez gain, erremonta-

Proiektu nagusiak

Bere ibilbidean zehar egindako proiektuen artean, hiru izan dira gehien nabarmendu dituenak. 2020an biolin bat egin zuen, eta eskuz egindako lehen instrumentuetako bat izan zen. Horrek eskulangintzaren eta musikaren arteko lotura sakonago ulertzera eraman zuen. “Instrumentu bat egitea erronka handia da, soinuak nola funtzionatzeko duen ulertu behar duzu, ez da soilik egitura fisikoa eraikitzea”.

Urte bat geroago, argazki kamera bat

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXI SOROA

609 168 217

Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI

Telefonoa eta Faxa: 948507343

carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

aseguru gintza XXI

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

► aseguruak@aseguruak.eus

► 943 65 22 20

► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak: 948 51 30 26 - 663 97 67 09

ALIPROX

Lekunberri

janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak

OTXOTORENA okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA: 948 51 30 32

*"Instrumentu bat egitea
erronka handia da, soinuak
nola funtzionatzan duen
ulertu behar duzu"*

sortu zuen. Unibertsitate garaian argazkigintzan interesa piztu zitzaion, eta bere kabuz kamera analogiko bat eraikitzea erabaki zuen.

Amaitzeko, 2023an trikitia bat eraiki zuen. Dirudienez, 10 hilabete iraun zuen proiektu konplexua izan zen. Buldainek, Trikitia Euskal Herriko instrumentu berezietako bat dela dio, eta erronka handitzat hartu zuen bere bertsio propioa sortzea. "Trikitia egiteak asko irakatsi dit mekanismo konplexuei buruz. Barruko pieza guztiak ongi ulertu eta doitzea funtsezkoa izan da. Lan asko eskatzen du, baina prozesua oso aberasgarria izan da".

Erreferenteak eta etorkizuneko helburuak

Erreferente artistikoei dagokienez, Julen ez da pertsona bakar batean oinarritzen. Proiektu bakoitzean inspirazio iturri desberdinak ezagutzen ditu, eta horregatik, ez du eredu finkorik. Gehienetan, Internet bidez erreferentziak bilatzen ditu, eta horren arabera moldatzen ditu bere ideiak. Dena den, Eugenio Monesma, zinema etnografikoaren zuzendaria eta ekoizlea aipatzen du inspirazio iturri gisa. "Monesma, tradizioei,



Julenek egindako argazki kamera.

galdutako lanbideei eta ohiturei buruzko dokumentalengatik da eza-guna, eta horregatik miresten dut". Etorkizunari begira, bere burua egungo egoeran ikusten du, baina tailer handiago bat lortzea gustatuko litzaioke, proiektuak eroso garatzeko. Azoketan parte hartzeko modua ere aldatu nahiko luke, bere lanaren ikuspegia hobeto transmititzeko. "Eskulangintza ez da sortutako produktua erakustea besterik, prozesua ere garrantzitsua da. Horregatik, interesa duten herritarrek nire lan prozesua

*"Trikitia egiteak asko irakatsi
dit mekanismo konplexuei
buruz"*

ikustea eta ulertzea gustatuko litzaioke".

Julenek batzuetan eskariak egiten jarraitzen duen arren, nahiago du barrutik sortzen zaizkion proiektuei ekitia, eskatutako lanek sortzaile moduan lotzen dutela sentitzen baitu.

Momentuz, bere sormenari eusten dio, ofizioaren plazer hutsez.

Eskulangintza artisau gaztearen bizitzaren atal garrantzitsu bat da. "Materialekin dudana harremana oso sakona da, pieza bakoitza nire lanaren eta alderdi artistikoaren fruitua da". Etorkizunean, mundu artistikoak nora eramango duen ikusteko dago, baina momentuz, bere erritmora jarraitzen du, beti jakin-mina eta sormenarekiko interes berezia oinarri izanik.



Buldainek sorturiko biolina



Eskuz landutako giltza eta kandadua

CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

Construcciones
Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📧 construccionegañarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

IORTIA

CLINICA DENTAL - HORTZ-KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo - Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainetan
Mikroblading bekainetan

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com



DANTZA ETA MUGIMENDUA ARAIZKO UDALETXEAN

Araitzen, Maitane Azpirozek zuzendutako dantza eta mugimendu tailerlean parte hartzeko aukera izanen da hilean bi aldiz. Jarduera hau ostiraletan gauzatuko da, 18:30etik 20:00etara, eta parte-hartzaileek gorputz-adierazpena lantzeko aukera bikaina izango dute. Tailerra martxoaren 14tik maiatzaren 23ra bitartean garatuko da. Prezioak malguak dira: saio bakarra hilean 20 euro, eta bi saio 30 euroko kostuarekin. Informazioa jasotzeko edo izena emateko, deitu **618721758** zenbakira.



JOSKINTZA TALDEAN PARTE HARTU NAHI DUZU?

Astelehenero, 17:00etatik 19:00etara zazpi lagunez osatutako jostintza talde bat elkartzen da Araizko Udaletxean. Euskara Batzordeak antolatutako ekimen da, eta urtean 50 euroren truke, bi orduko saioa eskaintzen da. Horrela, herritarrek haien sormena lantzeko aukera desberdina dute; maindireak moztu, galtzak moldatu, kamisetak josi... Informazio gehiago nahi baduzu idatzi larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbide elektronikora.



HOBKUNTZAK GARAPEN ENPRESAKO LAN BALDINTZETAN

Lekunberriko kirol instalazioak eta eguneko zentroa kudeatzen dituen Garapen Elkartek langileen lan baldintzak hobetzeko akordioa sinatu du. 30 langile inguruz osatzen den enpresa hau Lekunberri eta Larraungo udalek finantzatzen dute, eta akordio berria berretsi dute. Orain, langile guztiak Nafarroako hitzarmenaren irizpideen arabera egonen dira, eta horrek, langileen baldintzak hobetzea sortaraziko du. Gainera, Garapenek konpromisoa hartu du 2025ean hitzarmen propio bat negoziatzeko, zerbitzuekin lotutako alderdi guztiak modu egituratuan arautzeko.



OSASUN ZENTROKO ZERBITZU KAXKARRA

Otsaila amaieran, Lekunberri eta Larraungo hogeita hamar herritar inguru elkartu ziren Gabari Gune Irekian, Osasun Zentroko egoera kaxkarrari buruz hitz egiteko eta konponbide bat bilatzeko. Kezka nagusia, mediku faltak sortu duen lehen atentzioen beharra zela adierazi zuten. Egoera horrek eragin zuzena izan du herritar askoren eguneroko bizitzan. Bileran, gabeziei aurre egiteko irtenbideak eztabaidatu zituzten, eta hainbat ideia eta proposamen aztertu ziren. Aurrerantzean, elkarretaratze gehiago antolatzea aurreikusten da, herritarrek egoera honi aurre egiteko indar gehiago bilatuz eta osasun zerbitzuak berrikusteko prozesuari jarraipena emanez.

BELOKI, OTSO ETA ARTZAINEN LURRALDEA

Aralarko mendilerroan kokatzen den Belokiko gailurra, artzainen, artaldean eta mendizaleen lekuko izan da mendeetan zehar. Bertako toponimiak otsoen presentzia historikoa adierazten du, "Otsoita" izeneko otsoen kobazuloa, adibidez. Otsoak 1925 eta 1930 bitartean desagertu ziren ofizialki, baina 1995 eta 1997 artean berriro ere agertu ziren, abeltzaintzan kalte handiak eraginez. Horregatik, XX. mendean, artzainek beren abereak babesteko harresi handiak, 'zerkea' izenekoak, eraikitzen zituzten. Beraz, otsoak desagertu arren, haien kondairak eta aztarnak lur hauetan bizirik diraude, Aralarko paisaia ezkutuenetan gordeta.



AUTOKONTSUMOA, ETORKIZUNA

Martxoaren 13an, Ixkier Komunitate Energetikoak bilera irekia antolatu zuen Lekunberriko Udaletxeko Batzar Aretoan, autokontsumorako instalazio fotovoltaiako kolektibo berriaren xehetasunak azaltzeko. Hogei herritar inguru bertaratu ziren, eta 100 kW-ko instalazioei buruzko informazioa zehatza jaso zuten. Plaka hauek Lekunberriko kiroldegiaaren teiltuan kokatuko dira eta %60ko laguntza ekonomikoa izanen dute. Gainera, 40 kontsumitzailek parte hartu ahal izango dute, bakoitzak 2,5 kW jasoz. Proiektu hau Lekunberri, Iribas, Alli, Mugiro eta Etxarriko bizilagunentzat da.



Larraungo Eguneko Batzordea: Ainhoa Beraza, Ainhoa Fernandez (Larraungo Kultur Zinegotzia), Aitor Irastorza, Aitor Perez (Larraun eta Lekunberriko Kultur Teknikaria), Beatriz Buldain (Larraungo AEK), Enara Begiristain (Tirikitrauki Dantza Taldea), Lorea Lasarte eta Mikel Betelu.

“Larraungo Eguna herritik eta herriarentzat antolatutako ospakizuna da”

Larraungo Eguneko Batzordea, 25 urteko ibilbidea duen jaialdiaren antolatzailea da. Larraun eta inguruko herrietako komunitatea elkartzeko sortu zen festa honek, euskal kultura eta tradizioen transmisioa du ardatz, eta urtez urte, herritarren parte hartzeari esker, antolakuntzak eta berrikuntzak aurrera jarraitzen dute.



Larraungo Eguneko Batzordea. Arg.: Ainhoa Beraza

Noiz eta nola sortu zen Larraungo Eguna?

Larraungo Eguna duela 25 urte inguru sortu zen, Larraungo AEKren bitartez, nahiz eta lehendik, tarteka, Larraun bat izeneko bestelako ospakizun bat antolatzen zen. Garai hartan, euskararen erabilera eta herri arteko harremanak sustatzeko beharra ikusi zen, eta horretarako ospakizun bateratu bat antolatzea erabaki zen. Lehen edizioa Larraungo AEK, Mitxasene, Musika Eskola, Euskara Zerbitzua eta norbanako batzuen artean antolatu zen, betiere, udalen parte-hartzearekin. Eta helburu argi batekin hasi ziren: ibarreko herriak elkartzea, euskaraz bizitzeko aukera ematea eta komunitate sentimendua indartzea. Urtez urte, herriz herri ospatzen joan da, eta hasierako asmoa mantenduz,

“Urtero gonbidatzen ditugu ibarreko kultur taldeak Larraungo Egunean parte hartzera”

Larraungo herritarrek elkartzea eta euskal kultura dituzte ardatz.

Zein da jaialdiaren helburua?

Gure ibarreko egunaren helburua argia da: 17 herriak elkartzea, komunitatea sendotzea eta gure kulturaren, historiaren eta ohituren transmisioa bermatzea. Urtero herri desberdin batean ospatzen dugu eguna, eta horrek aukera ematen digu ibar osoko jendea batzeko, harremanak estutzeko eta gure identitatea indartzeko.

Halaber, belaunaldi berriek beren sustaia ezagutzea eta bertako kulturaz harro sentitzea ere sustatu nahi dugu. Finean, batasuna, parte-hartzea eta euskal kultura bizirik mantentzea dira gure xede nagusiak.

Zein ekintza nabarmen antolatu dira aurtengo Larraungo Egunerako? Nola aukeratzen dira programako ekitaldiak?

Urtez urte egitaraua nahiko antzekoa izaten da, nahiz eta berrikuntzaren bat urtero sartzen den. Egitaraua Batzordean adosten da, eta ekintzen antolaketa Batzordean eta bileretan parte hartzen dutenen artean banatzen da. Aurtengo egitaraua ez da guztiz osatu, heldu den apirilaren 15ean deituko dugun bilera irekian aztertuko baitugu.

Nolako parte-hartzea dute Larraungo herritarrek ospakizunetan? Nola sustatzen da hori?

Larraungo herritarren parte-hartzea funtsezkoa da Larraungo Eguna ospatzeko. Herritarrek hainbat modutan inplikatu dira. Antolakuntzan aritzen diren herritarrez gain, badira ekitaldi jakinetan aktiboki parte hartzen dutenak ere. Herriz herri txandakatzen joaten garenez, herri guztietako bizilagunen partaidetza gertatzen da.

Bestalde, Mailoek eman digun aukera probestu nahi dugu Larraungo bizilagunak parte-hartzera animatzeko. Bai aurretik antolatzeko egiten diren bileretan, bai egunean bertan egoten diren hainbat lani aurre egiten laguntzen, bai ekitaldian parte-hartzen.

Horri esker izango baita Larraungo Eguna benetan herritik eta herriarentzat antolatutako ospakizuna.

“Larraungo herritarren parte-hartzea funtsezkoa da Larraungo Eguna ospatzeko.”

Zer egiten da bertako kultura eta tradizioa mantentzeko?

Urtero gonbidatzen ditugu ibarreko kultur taldeak Larraungo Egunean parte hartzera. Guztiz errotuak daude Larraun Pilota Eskolako partiduak, Aralar Udal Musika Eskolaren partaidetza, edota Tirikitrauki Dantza Taldearen emanaldia. Horrela, bertako musika, dantza, bertsolaritza, kirola... batzeko nahia bilatzen dugu beti. Azkenean ez dugu eguneko festa honen haria galdu behar: ibarrean komunitatea eta indarra sortzeko eguna izatea, eta hori izango da beti gure nahirik nagusia.

Zein erakunde, elkarte edo enpresa laguntzen dute jaialdi honetan? Nola?

Larraungo Eguneko Batzordea elkarre eta entitate ugari osatzen dute: Larraun eta Lekunberriko Udalek, Euskara Zerbitzuak, Kultura Sailak, Larraungo AEK-k, Bertso Eskolak... baina, noski, edonorentzat atea irekiak daude beti. Hain zuzen, aurtengo Larraungo Eguneko Batzordea elkarre moduan ofizialki sortzeko pausoa eman dugu, nolabait batzordea finkatu eta egonkortzeko. Horretarako, ezinbestekoa da bizilagun eta elkarten laguntza, bestela ezinezkoa izango litzateke festa hau aurrera eramatea.

Zein dira antolakuntzan izaten dituzuen erronka nagusiak? Nola egiten diezue aurre oztopoei?

Erronka nagusiak boluntarioen mobilizazioa, egitaraua eta parte-hartzea, eta eguraldia eta logistika dira gehienbat.



2024an Baraibarren ospatu zen Larraungo Eguneko une bat. Arg.: Anne Oreja



2024an Baraibarren ospatu zen Larraungo Eguneko musikariak. Arg.: Anne Oreja

Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



“Antolakuntza-lanetan parte hartzeko prest dauden boluntarioak edukitzea erronka handia izaten da”

Ekitaldi arrakastatsu bat aurrera eramateko ezinbestekoa da jende askoren laguntza. Antolakuntza-lanetan parte hartzeko prest dauden boluntarioak edukitzea erronka handia izaten da.

Egitaraua eta parte-hartzeari dago-kionez, ekintza erakargarriak antolatzea garrantzitsua da adin tarte guztientzat. Batzuek kirola nahi dute, beste batzuek kultura edo musika, eta denen gustuko egitaraua osatzea ez da erraza izaten.

Bestetik kanpoan egiten diren ekitaldien kasuan, eguraldiak eragin handia izan dezake. Alternatibak prestatzea beharrezkoa da usteka-beak saihesteko.

Aurreko urteekin alderatuta, nolako berrikuntza edo aldaketa egin dira aurtengo ospakizunetarako?

Esan bezala, aurtengo egitaraua oraindik antolatzeke dago, baina aurrerapen moduan, kontzertuak eta bazkari herrikoia betiko moduan egiten direla esan dezakegu. Apirilaren 15ean egingo dugun bilerara gonbita egiten diegu larraundar guztiei, Larraungo Eguneko Batzordean parte har dezaten eta gure ibarreko festa denok auzolanean eraikitzeko.



2023an ospatu zen Larraungo Eguneko dantzariak. Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea



Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea

ERREPORTAJETXOA

●● Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak

ARAXES Ikas Komunitatean TRATU ONAK ARDATZ

Tratu onaren inguruko ekintzak eskola-komunitatean giro osasuntsu eta errespetuzkoa sustatzeko oso baliagarriak dira. Haur Hezkuntzatik abiatuz, proposamen progresibo bat egitea proposatzen da, ikasleek pixkanaka gai horretan sakondu eta harremanak era positiboan eraiki ditzaten.



Bizikidetza Batzorde Mistoaren bileran, tratu onak gaia lantzea adostu zen. Horretarako proposamenak bildu eta zikloka zenbait jardura sailkatu ondoren, aurrera eraman ziren. Azken produktu bezala, eskolako sarreran, ikasleek egindako eskuekin zuhaitz erraldoi bat osatu zen, Azaroak 25eko efemeridea aitzakitzat hartuz.

Ikasle bakoitzak osatu behar zuen eskuan, hitz, mezu edo esaldi bat idatzi behar zuen tratu onen gaia kontuta hartuta.

Zuhaitza (beso erraldoia), zeukan berezitasuna zen, 6 hatz zituela. Hatz bakoitzean, eskolako dekalogoak osatzen duten hitz gakoak azaltzen dira.

LH3-LH4ko tutore eta batzordeko irakasleek, tutoritzan lantzeko gaia aurkeztu ziguten. Gaia ulertzeko hainbat ariketa egin genituen:

- Egoera bat irakurri eta berari buruzko hausnarketa tertulia egin.



- Bideoak ikusi eta hausnartu
- Hizki zopak
- Gaiari buruzko abesti ezagunak entzun.

Abiapuntutzat eta tratu onekin kontzientzia hartzeko, eskolako dekalogoak kontutan izan genuen.

Dekalogoak 6 hitz zituenez, eskua, 6 hatzekin sortu genuen.

Hatz bakoitzean, dekalogoko hitz bat

idatzi ondoren, esku erraldoi honek zuhaitzaren forma hartu zuen.

Ikasle bakoitzak bere eskuaren silueta egin, barruan esaldi, hitz, lelo, marrazki... bat idatzi eta apaindu zuen. Egindako esku horiek zuhaitzaren hostoak izango ziren. Ikastetxe osoko eskuak itsatsi ondoren, eskolako sarreran zintzilikatu genuen.

MAITE HARATEGIA

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte

HARATEGIA

Arakal kalea 9 Lekunberri 948504157

SAN MIGUEL

gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099 Ambe-Atailu

urrutia enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

Bukatu dira gure eskualdeko inauteriak!

Aurtengoan ere amaitu dira inauteriak, Gaintza eta Gorriti izan dira azkenak aurtien ospatzen. Puskabiltzan ibili ziren etxez etxe egunean zehar, batean eta bestean gustura jaten eta edaten, musikarien doinu zoragarrian. Mozorro berezi eta koloretsuak ez ziren falta, herritarren barre eta algar tartean. Giro ederra osatu zen, eta egunaren bukaeran, etxera joateko presarik izan gabe luzatu zuten festa, berandu arte izarren azpian kantatuz eta dantzatuz.

AZPIROTZ



Arg.: Ainhoa Mitxaus



Arg.: Ainhoa Mitxaus

ALDATZ



Arg.: Argiñe Bildarratz



Arg.: Argiñe Bildarratz

BARAIBAR



Arg.: Olaia Uhart



Arg.: Olaia Uhart

GAINTZA



Arg.: Julen Saralegi



Arg.: Julen Saralegi



Arg.: Julen Saralegi



Arg.: Julen Saralegi

GORRITI



Arg.: Oihane Balda



Arg.: Oihane Balda



Araitz-Betelu. Arg.: Eneritz Urkola

Ausardia eta aliantza feministak gure eskualdean

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Lekunberri eta Larraungo udalek martxoan zehar ekitaldi anitz barne hartzen zituen programa zabala antolatu zuten. Eskualdeko Berdintasun Mahaia eta hainbat erakunderen lankidetzarekin, genero berdintasunaren aldeko hausnarketa, parte-hartzea eta berdintasuna sustatzea izan ziren helburu nagusiak.

Jarduerak martxoaren 1ean abiatu ziren, "Yo, madre" antzezlanarekin, Gabari Gune Irekian. Martxoaren 3an, berriz, haurrentzako "Iratiren esamesak" ipuin-kontaketa saioa gauzatu zen Lekunberriko Bazar Aretan.

Martxoaren 6an, kirola eta hausnarketa uztartu ziren: goizean, ginkana bat egin zen Lekunberriko kiroldegian, eta arratsaldean, "Generación porno" dokumentala proiektatu zen TXIKIPARK-en.

Ekitaldi nagusia martxoaren 8an ospatu zen, 12:30ean Larraungo Udaletxean hasi eta Lekunberriko Udaletxean amaitu zen manifestazioarekin. Ondoren, bazkari herrikoia egin zen 14:30ean, eta arratsaldeko saioa 18:00etan hasi zen. Gainera, Araitz-Beteluko Berdintasun Mahaia "Kalejira Morea" antolatu zuen, Betelutik Arribera, eta ondoren denak Arribeko Surtidorera joan ziren afaltzera.

Aurrerago, martxoaren 11n, Kattagorri elkartearen pinxo dastaketa antolatu zen. Martxoaren 14an, "Terapia II" antzezlanaren aurkeztu zen Gabari Gune Irekian. Programazioari amaiera emateko, martxoaren 22an "2zi bularretik ehundutako aitortzak" dokumentala proiektatu zen Gabari gunean.

Programazio zabal honen bidez, Lekunberri eta Larraungo udalek emakumeen ikusgarritasuna eta genero berdintasuna sustatzeko duten konpromisoa berretsi zuten.



Lekunberri-Larraun. Arg.: Beñat Barberena



Lekunberri. Arg.: Maider Balda



Terapia II antzezlanaren aurkeztu. Arg.: Maider Balda



'Yo madre' antzezlanaren aurkeztu. Arg.: Maider Balda

Kobazuloen Eguna berezia izan da aurtengoa

Martxoaren 15 eta 16an ospatu zen Kobazuloen Eguna Mendukilo leizean. Egitarauaren barruan, egunean zehar artzaintzaren inguruko ikus-entzunezko laburrak eskaini ziren, eta bisitariak Idiazabal gazta eta tokiko esnea dastatzeko aukera izan zuten, gure inguruko tradizio gastronomikoaren osagarri gisa. Era berean, ekitaldira hurbiltzen ziren guztiek zozketa batean parte hartzeko aukera izan zuten, eta hainbat sari erakargarri lortu zituzten. Gainera, 2025a urte berezia da, izan ere, Gure ibarreko haizulo berezi honek 20 urte betetzen ditu Aralarreko barrunbeak erakusten eta ingurunea balioan jartzen.



Mendukilo leizea



Autoen erakusketa Lekunberrin

Autoen erakusketa Lekunberrin

Martxoko lehen asteburuan Lekunberriko frontoi pareko aparkalekuan, autoen erakusketa berezi bat ospatu zen. Hamarnaka lagun elkartu ziren eta erakusketan, modelo desberdinetako ibilgailuak ikusteko aukera izan zuten, besteak beste: etxeko auto klasikoak, berrienak, eta baita automobilgintza munduko azken joerak ere.

Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista, Printzan

Jakoba Errekondok, ilargiaren eta landareen agendaren aurkezpena egin zuen Printzan. Hamarnaka lagun bertaratu ziren, eta ikusleek idazlearen hitzekin asko ikasi zutela adierazi zuten, eta baita gehiago ikasteko gogoz gelditu ere!



Jakoba Errekondo, Printzan

MOTZ-MOTZEAN

KOLDO NUÑEZ

Euskara eta indioak

Laster Euskaraldia izango da geure artean, besteak beste, euskararen erabilera bultzatzeko. Nik euskara maite dut eta harro nago euskalduna izateaz.

Hau guztia lotu nahi dut joan den urtarrilean izandako bizipen batekin. Izan ere, Lisa nire bikotearen ama Estatu Batuen Niagara hirian bizi da, ur-jauzietatik oso gertu. Bere etxea herritik kanpo dago, arto-soro eta basoen artean. Etxe honen ondoan Tuscarora indiarren erreserba dago. Izen honek "Kalamuaren Herria" esan nahi du. Erreserban, besteak beste, oinarritzko eskola bat dago eta aurtur baimena eman ziguten eskola bisitatzeko. Bi klasetan hartu genuen parte, 7 eta 8 urte inguruko haurrekin. Euren hizkuntza ikasteko klaseak ziren, indio hauek hura berreskuratzeko egiten ari diren ahaleginean, 2020az geroztik ez baita geratzen ama hizkuntza skarò'raq? edo tuscarora duenik.

Haurrek zein irakasleak lagunduta, "Hiru ahizpak" abestia (artoa, babarrunak eta kalabaza) abestu eta dantzatu genuen eta Uno kartetan jolastu, beste zenbait ekintzen artean, horrela hizkuntza lantzen baitzuten. Haien mintzaira oso zaila iruditzen zitzaizkien eta hitzak ahal bezala errepikatu nituen. Bai kantuetan, bai eskolan, Naturekin eta berau populatzen duten Espirituekin indiarrek duten lotura handia nabaria zen. Indiarrek haien arbasoen hizkuntza berpiztu nahian ari dira. Guk geure arbasoen hizkuntza dugu euskara eta maitasunez zaintzen dugu.



“Nire lagunak aizkoran aritzen ziren eta haiek bultzatu ninduten mundu hau ezagutzera”

Norgehiagoka berezia izanen da apirilaren 26an, Tolosako zezen-plazan, non Andoni Iruretagoienak “Izeta VI.a” eta Txomin Amundarainek, 5.000 euro jokatuko dituzten, indarra eta erresistentzia neurtzeko erronka zorrotz batean. Aizkolarari bakoitzak 12 kanaerdiko eta 60 hazbeteko sei enbor moztu beharko ditu, alegia, hogeitaz pieza baino gehiagori aurre egin beharko diete. Lehia otsail hasieran itxi zuten, Tolosako Kantabriko jatetxean, eta aipagarria da bi aizkolarientzat lehenengo apustua izanen dela. Izeta VI.a, Euskal Pentatloian lau aldiz txapeladuna eta Euskal Herriko Txapelketako finalista da. Amundarainek, berriz, Urrezko Binakako Aizkolarari Txapelketan lehiatzen jarraitzen du, eta esperientzia zabala du federaziotik kanpoko txapelketetan. Bi estilo desberdineko kirolariak dira, baina dirudienez anbizio bera dute.



Izeta eta Amundarain apostua ixten. Arg.: N.G

Nondik datorkizu aizkora-jokoarekiko zaletasuna?

Nire lagunak aizkoran aritzen ziren eta haiek bultzatu ninduten mundu hau ezagutzera, Errazkingo Eneko eta Ruben Saralegi izan ziren inspirazio iturri. Saltsa hura ezagutu ostean, txapelketa batean izena ematea bururatu zitzaidan eta pixkanaka, ibilbide hartatik jarraitu nuen. Egia esan, kasualitatez hasi zen dena, ez da familiaratik datorkidan tradizio bat, nahiz eta etxekoak kirolzaleak izan, aizkora munduan eta herri kirol munduan ez dira bereziki jarraitzaileak izan.

Zenbat denbora daramazu lehiatzen?

25 urterekin hasi nintzen eta 5 urte

“Izeta kirolari handia da, pentatloiko txapelketetan arrakasta handia izan du”

daramatzat mundu honetan murgilduta. Hasi eta berehala, Ibai Soroa eta ni lehen mailako aizkolarien aurka aritu ginen txapelketa batean, eta bertan, binakako bi txapelketa irabazi genituen. Guretzat oso garrantzitsua izan zen. Aurrerago, Sherpako final bat jokatu nuen eta Nafarroako beste hiru final. Lehia garrantzitsuenak horiek izan ziren.

Eta Tolosako zezen plazako apustua...

Hilabete honetan, apirilaren 26an,

Tolosako Zezen Plazan jokatu da. Apustua Izeta VI.aren aurka izanen da, eta afizio honetan izan dudana egunik garrantzitsuenetako bat izan daiteke. Aizkora munduan ibiltzen garen gehienoi, asko gustatzen zaizkigu apustuak, eta kasu honetan Izeta ere gogotsu zebilen. Azkenean elkarren aurka lehiatzea erabaki genuen. Gainera, bion lehenengo apustua denez, berezia izanen da.

Zer iritzi duzu zure aurkariari buruz?

Izeta kirolari handia da, pentatloiko txapelketetan arrakasta handia izan du. Fisikoki oso indartsua da, baina uste dut aizkora munduan pentatloian adierazten duen gaitasun hori ez duela erakutsi, eta horrekin jolas-



Arg.:Txomin Amundarain



Soroa eta Amundarain txapelketako une batean



Soroa eta Amundarain txapela lortu ostean

ten saiatuko naiz. Irabazteko gakoa aizkora izan daiteke. Izeta proba konbinatuetan oso-oso ona da, baina aizkoran, orain arte behintzat, ez du hori erakusteko aukerarik izan.

Nola ikusten duzu aizkoa-jokoa etorkizuna?

Egia esan, azkeneko bi urteetan mutil gazte asko animatu dira kirol honetan parte hartzea. Orain arte, 23-24 urte-tik behera ez dira aizkolaria asko egon, baina azkeneko 2-3 urteotan gauzak

aldatzen ari dira; bai Nafarroan, Gipuzkoan... eta hori oso seinale ona dela iruditzen zait. Gainera, maila nahiko txukuneko kirolari berriak azaltzen ari dira, denbora gutxian progresio ona egiten ari direnak. Hori da behar dena, gogoia, ilusioa... Pena da erakustaldiak asko murriztu direla eta mutil gazte horiek plaza gutxi ezagutu dituztela. Alderdi horretan hobekuntza handia egin behar da, etxean erakustaldiak buruzko ideiak bultzatzea ezinbesteko dela pentsatzen dut. Batez ere gazteen

“Azkeneko bi urte hauetan mutil gazte asko animatu dira kirol honetan parte hartzea”

etorkizuna hobetzeko. Pertsonalki, gutxien espero nuenean piztu zitzaidan afizio honekiko interesa. Horregatik, belaunaldi berrietako kirolariei, aizkora mundua probatzeko mezua zabaltzea nahi diet.



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

XXXV Lekunberriko Krosa, inoiz baino biziago

Arruizko Txikitoren Memorian, lasterketa solidarioa egin zen Kaskamotzekin elkarlanean, Lekunberrin, martxoaren 16an. Bertan 138 lagunek hartu zuten parte, aurreko urteko arrakastaren bultzada jarraituz. Krosean lortutako irabaziak, aurreko urtean bezala, “Cris Contra el Cáncer” Fundaziora bideratu ziren, haurren minbiziaren aurka jarduten duten Madrilgo “Hospital Universitario de la Paz”eko ikerketa-taldera. Izan ere, haur minbiziari aurre egiteko baliabide asko falta dira oraindik, eta horretarako, aurreko urtean bezala, Kirolmankek Lekunberriko Krosarekin lagundu du. Lasterketa amaitu ostean, hainbat sari banatu ziren, kirolari azkarrenentzat eta hainbat produkturen zozketako irabazleentzat. 4,7 kilometroko lasterketan Unai Perez izan zen mutil azkarrena, ibilbidea 0:14:41 minutuan egin zuen Atarrabiako korrikalariak. Nesketan, berriz, Guratz Azpirozek eraman zuen saria etxera, ibilbidea 0:17:52 minutuan egin zuen Uitziko korrikalariak. 8,8 kilometroko ibilbidean berriz, Raul Amatriain iritsi zen lehengo helmugara, 30:41:00 minutuan amaitu zuen lasterketa Uitziko korrikalariak eta nesketan berriz Nerea Murua, 0:34:01 minututan iritsi zen helmugara Altzoko korrikalaria. Lasterketa nagusiaren aurretik, haurren lasterketak egin ziren, bertan, 107 haur elkartu ziren. Jende mordoz giro paregabe eta kirolaria osatu zen Lekunberrin.



Talde argazkia. Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea.



Nerea Murua, Lucia Garate eta Maddi Sotil. Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea



Goiztiarrak lasterkariak lehiatzen



Raul Amatriain, Ibai Echeguia eta Josu Zabaleta. Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea

OROKORRA 8.8KM GIZONAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Raul Amatriain	UITZI	30:41:00
Ibai Echeguia	IBARRA	31:36:00
Josu Zabaleta	LEITZA	32:22:00
OROKORRA 8.8KM EMAKUMEAK		
Nerea Murua	ALTZO	34:01:00
Lucia Garate	GASTEIZ	34:57:00
Maddi Sotil	BETELU	39:55:00
8.8KM HARANEKOAK		
Raul Amatriain	UITZI	30:41:00
Mikel de Carlos	LEKUNBERRI	33:21:00
Aitor Etxarri	ODERITZ	33:57:00
Mikel Olleta	GORRITI	36:36:00
Xabier Lasarte	LEKUNBERRI	37:16:00
Oier Lekuona	LEKUNBERRI	37:30:00
Ander Miqueo	ARRIBE	37:56:00
Asier Eleta	LEKUNBERRI	38:43:00
Mattie Garaikoetxea	BETELU	38:50:00
Iñigo Gurrea	LEKUNBERRI	39:07:00
Hodei Buldain	LEKUNBERRI	39:07:00
Kiko Eskamendi	BETELU	39:18:00
Ander Balda	LEKUNBERRI	39:23:00
Oihan Igoa	LEKUNBERRI	39:44:00
Maddi Sotil	BETELU	39:55:00
Ander Arraztio	BETELU	39:56:00
Xabier Iruiria	LEKUNBERRI	39:56:00
Aiora Irastorza	LEKUNBERRI	40:13:00
Unax Navascues	LEKUNBERRI	40:40:00
Iñigo Ruiz	LEKUNBERRI	41:13:00
Aimar Estanga	LEKUNBERRI	41:51:00
Ibai Aldaregia	LEKUNBERRI	41:56:00
Isusko Michaus	LEKUNBERRI	42:17:00
Imanol Estanga	LEKUNBERRI	42:42:00
Ruben Soria	BARAIBAR	43:03:00
Ibai Ijurko	LEKUNBERRI	43:15:00
Jon Ander Etxarri	LEKUNBERRI	43:32:00
Santi Garmendia	BETELU	44:20:00
Amaia Balda	LEKUNBERRI	44:34:00
Unai Otermin	LEKUNBERRI	44:56:00
Egoi Ijurko	LEKUNBERRI	45:16:00
Lucia Ayestaran	LEKUNBERRI	45:51:00
Nora Unanua	LEKUNBERRI	46:55:00

OROKORRA 4.4KM GIZONAK		
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA
Unai Perez	ATARRABIA	14:41
Asier Mujika	IBARRA	14:49
Ander Carrascon	MUSKITZ	15:24
OROKORRA 4.4KM EMAKUMEAK		
Guratz Azpiroz	UITZI	17:52
Atia Arregui	SARASA	19:04
Hildegart Gonzalez	SARASA	19:22
4,4KM HARANEKOAK		
Aimar Lansalot	LEKUNBERRI	16:15
Orkatz Aldabe	LEKUNBERRI	17:09
Sasha Smith	LEKUNBERRI	17:27
Guratz Azpiroz	UITZI	17:52
Maider Saralegi	LEKUNBERRI	21:53
Juan Martin Martinicorena	LEKUNBERRI	21:57
Maite Azpiroz	LEKUNBERRI	22:24
Josu Valencia	LEKUNBERRI	22:49
Maider Agirrezabala	LEKUNBERRI	23:00
Jabi Leotz	LEKUNBERRI	23:10
Iñaki Oiarzun	BARAIBAR	23:10
Amaia Cuesta	LEKUNBERRI	23:36
Adria Perez de Rosas	LEKUNBERRI	23:37
Eva Fernandez	LEKUNBERRI	23:42
Iker Leoz	LEKUNBERRI	23:41
Antonio Martinez	LEKUNBERRI	23:41
Isabel Rodriguez	LEKUNBERRI	23:42
Ane Barberia	LEKUNBERRI	23:50
Olaia Huarte	BARAIBAR	23:56
Oihane Beloki	LEKUNBERRI	24:16:00
Garbiñe Bernal	GORRITI	25:45:00
Andrea Albeniz	LEKUNBERRI	25:54:00
Iñaki Albeniz	LEKUNBERRI	25:54:00
Maddi Soroa	LEKUNBERRI	26:10:00
Olaia Soroa	LEKUNBERRI	26:10:00
Bingen Begiristain	ALDATZ	26:39:00
Iker Uruga	ODERITZ	26:39:00
Lorea Peñalver	LEKUNBERRI	26:46:00
Amaia Landa	LEKUNBERRI	27:44:00
Miren Botello	LEKUNBERRI	27:44:00
Xana Belastegui	LEKUNBERRI	27:56:00

Larraun Pilota Eskola Ohorezko Mailara igo da

Larraunek, Leitzako Aurrera Pilota Taldea garaitu zuen Logroñoko Adarraga pilotalekuan Lehenengo Mailako finalean. Partidu gogorra izan arren, erabateko emaitza 29-24 puntukoa izan zen. Finalean, Unai Astiz, eskuz-banaka, eta Julen Sotil eta Iñaki Galartza, binaka, aritu ziren. Txapelketa irabaztearen ondorioz, hurrengo denboraldian Espainiako Ohorezko Mailan arituko dira.



Talde argazkia. Arg.: Esther Mikeo

Eneko Saralegi Urrezko Binakako Txapeldun

Martxoaren 16an jokatu zen Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa, Azpeitian, Izarraitz pilotalekuan. Eneko Saralegi errazkindarrak 24:18 denborarekin irabazi zuen, Iker Vicente kirolariarekin batera. Bigarren postua Txikia IV eta Ibai Soroa arribetarrak berenganatu zuten 24:49 denborarekin, eta ondoren, Hodei Ezpeleta eta Arkaitz Etxebestek 27:48 unean eten zuten kronometroa.



Iker Vicente eta Eneko Saralegi

Lorea Burguete, Aranguren Ibarreko XI. Duatloiean emakume azkarrena

Lorea Burguete Mikeok, Lekunberriko kirolariak, martxoaren 16an Mutiloan ospatutako Nafarroako Duatloi Txapelketan, emakumeen kategorian, lehen postua bereganatu zuen. Hasiera batean, 5 km egin behar ziren korrika, 2,5 km-ko 2 bira emanez udalerriaren inguruan. Jarraian, bizikletaz joan behar zen Labianoraino eta errepide beretik itzuli (18km). Eta, azkenean, 2,5 km lasterka. Aranguren Ibarreko Triatloi Klubak antolatu zuen lasterketa. Goizean goiz hasi ziren eta lehiakortasun handiko proba bizia izan zen.



Lorea Burguete (Hiru Herri), 2. Niobe Arregui (Hiru Herri), eta 3. Ane Arrosagaray (Saltoki Trikideak)

LABORAL Kutxa eta AMA Tolosa aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta, oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako 4 esperientzia gastronomiko eta 2 laguntzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean*.



HARTU PARTE HEMEN:
laboralkutxa.com/veu/
babesleak-ama-tolosa

*LABORAL Kutxaren bezera diren 18 urteko gorsko pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baina 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa AMA Tolosa jabetzako esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzako bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat. HORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10etik, AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Buzi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.

LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

●● Amets Vaca Ochoa (Lekunberri)

“Ikasketak amaitu nituenean, urtebetez Estatu Batuetara joatea erabaki nuen”

Amets Vacak, txikitatik zuen Estatu Batuetara joateko ametsa. 14 urterekin hilabete bat Floridan igaro ostean, herrialde hartan bizi nahi zuela erabaki zuen, “Estatu Batuetako ametsa” bizi nahian. Gaur egun, Rochester (Monroe konderria, New York) herrian bizi da. Errealitatea desberdina den arren, bere ustez, askatasun berri bat aurkitzeko aukera ederra izan da. Orain arte bizitako esperientzia pertsonalak eragin handia izan du, lehen aldia baita etxetik hain urrun bizi dela. Baina lortutako independentzia eta esperientzia berriek liluratu dute.



Amets Vaca Estatu Batuetan. Arg: Amets Vaca

Nola erabaki zenuen *Au pair*, hau da, haurrak zaintzeko lan baten truke, Estatu Batuetako familia batekin bizitzera joatea?

Patroigintza eta moda ikasi nuen Donostian, eta ikasketak amaitu nituenean, urtebetez Estatu Batuetara joatea erabaki nuen. *Au pair* moduan lan egiteak bisatua lortzeko aukera erraza eskaintzen du, eta gainera, era honetan lan egiten nuen bitartean; bidaiatzeko, bertako lagunak egiteko eta gauza berriak ikasteko aukera ere eskaintzen du.

“*Au pair* programa truke kultural bat da”

Au pair programa truke kultural bat da, eta *Cultural Care* izeneko agentzia batek kudeatzen du. Haiek prozesu guztia antolatzen dute ordainketa baten truke. Pertsona bakoitzaren profila plataforma batera igo eta bertan, bakoitzaren interesen eta aukeren arabera, gustuko familia

bat bilatzeko aukera eskaintzen du. Prozesua “match” bat egitean hasten da, eta hortik aurrera, hainbat bideodei egiten dira hautatutako familiarekin. Azkenean, funtsezkoa da familiaren eta langilearen arteko harremana egokia izatea.

Nolako da zure hango familia? Zer egiten duzu zure egunerokotasunean?

Bi neska zaintzen ditut, June eta Vera, 2 eta 4 urtekoak, hurrenez hurren. Nire eguneroko lana haien beharrei erantzutea da. Nire lan ordutegia aldakorra da: astearte, asteazken eta ostiralean 08:00etatik 18:00etara; eta ostegunetan, berriz, 17:00etatik 21:00etara, gurasoek *Date night* antolatzen dutelako. Haiek ere lanpetuta daudenez, nire ordutegia haien beharretara egokitzten da, eta astelehenetan, haurrak “haurreskola” moduko batera joaten dira, hemen zuzenean 5 urterekin hasten dira eskolan.

Eta hizkuntzarekin zer moduz moldatzen zara?

Oso ongi moldatzen naiz. Hasieran zailagoa izango zela pentsatzen nuen, baina egunerokoan ingelesez hitz egiten dut. Dena den, nire lagun gehienak Argentinakoak eta Espainiakoak dira, eta haiekin erraz aritzen naiz. Nire inguruan Puerto Ricoko herritar asko daude, baina gehienek ingelesez hitz egiten dute. Sei hilabete daramatzat hemen, eta ingelesez hobetu dudala nabari dut. Euskal Herrian britainiar ingelesa irakasten digute, eta nire ustez, hori zailagoa da. Estatu Batuetako azen-tua argiagoa eta errazagoa iruditzen zait ulertzeko. Hala ere, bertako esamoldeak ulertzea erronka handia da, ez baitira guk ikasten dugun ingeles estandarrekoak.

Nolako da izan zen lehenengo eguna familiarekin?

Lehen astea oso gogorra izan zen.




Amets Vaca Ochoa Estatu Batuetako familiarekin

Hasieran urtebeterako etorri nintzen eta ziur nengoen nire erabakiaz, baina errealitateak harrapatu ninduen. Bat-batean bakarrik sentitu nintzen, nire familia eta lagunak Lekunberrin utzita, eta galdera hau burura etorri zitzaidan: “Zer ari naiz hemen?”. Lehenengo asteetan etxera itzultzeko gogoia izan nuen. Baina hala ere, uste dut zorte handia izan dudala. Hemengo familia zoragarria da, gurasoekin eta hurrekin harreman bikaina dut.

Nolako da zure lana haurrak zaintzen?

Neguan -25 gradutara iritsi gara, eta elurte handiak egon dira. Horrek kanpo-jarduerak mugatzen ditu, batez ere hurrekin. Hori dela eta, *Play date* asko antolatzen ditut beste *Au pair* batzuekin, eta haien haurrak nireekin jolasten dira. Bestela, liburutegietara joaten gara, hemen umeentzako gunegari baitaude eta egunero ipuin-kontaketak antolatzen dituzte. Saiatzen naiz egunean behin gutxienez ateratzen, umeek errutina egonkor bat izan dezaten.



Estatu Batuetako lagunekin irteera batean

“Printzipioz, 2026ko irailean itzuliko naiz, baina gehiago luzatzea ez dut baztertzen”

Zer da gehien gustatzen zaizuna hango bizitzaz? Eta zer gutxien?

Gehien gustatzen zaidana nire autonomia da. Duela gutxi erabaki nuen beste urtebete gehiago geldituko naizela. Printzipioz, 2026ko irailean itzuliko naiz, baina ez dut baztertzen gehiago luzatzea. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, elikadura da. Bertan ongi jan nahi baduzu, diru asko behar duzu. Erosketak egiterako lehen unean konturatu nintzen kalitatezko produktuak oso garestiak zirela.



Ametsen zaintzen dituen haurrak

“Egunerokoan ingelesez hitz egiten dut”

Beraz, etorkizunean...

Gertuko etorkizunean, hemen ikusten dut neure burua. Lekunberrira itzuliko naiz, bai, baina oraindik ez. 22 urterekin aukera gehiago daude hemen, eta esperientzia berriak bizi nahi ditut. Momentuz, hemen gertatuko naiz, eta gero ikusiko da.



SALTO! Udalekuak

Udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekuak antolatu ditu aurten ere UEMAK. Bertan, bi txanda izanen dira: ekainaren 24tik uztailaren 2ra, eta uztailaren 4tik 12ra. Aurten ere ibiltaria izango da ekimena, eta Arantzatik Elizondorako bidea egingo dute gazteek, Nafarroan barrena. Txanda bakoitzean 60 lagunentzako lekua dago, 2006 eta 2009 urteen artean jaiotakoentzat. Udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta saretzea da udalekuen helburua.

Informazio gehiago nahi baduzu:

- Telefonoz: 943 816699
- Posta elektronikoz: administrazioa@uema.eus
- Telegram edo Whatsapp bidez: 608 668 155



Lekunberriko Ogi Berrin, on egin!

Bazenekien bazkaltzeko edo afaltzeko aukera berria dagoela Lekunberriko Ogi Berrin? Patata frijituak, kroketak, errazioak, pintxoak, zure gustuko platerak, bokatak, postreak... Ez galdu aukera eta animatu bertako produktuak dastatzera! Informazio gehiago nahi baduzu, deitu **948 60 48 84** zenbakira.



Prest al zaude euskaraz gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin hitz egiteko?

Euskaraldiaren laugarren edizioa maiatzaren 15etik 25era egingo da, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburuarekin. Parte hartu nahi dutenek **euskaraldia.eus** webgunean eman dezakete izena.

16 urtetik gorako eta euskaraz ulertzen duten guztiek parte hartu ahal izango dute, Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratuta, parte-hartzaileek euskarazko komunikazioa bultzatzeko erronka hartuko dute, txapa bereizgarri bat soinean dutela.

Informazio gehiago eskuratzeko edo zalantzak argitzeko, idatzi Euskara Zerbitzura: **larbeleareuskaraz@iparmank.eus**.

AUKERATU ROLA!

AGENDA

APIRILA

3 - 19:00 Literatura geraldien zikloa: Ane Galarraga eta Petti. Gabari Gure Irekian.

4 - 18:30 Larraungo Ondare Inmaterialaren jasotzearen aurkezpen ekitaldia. Gabari Gune Irekian.

5 - 17:00 Euskaraz bai! Haurrentzako tailerrak. Iribasen.

6 - 10:30 XXXVIII Nafarroako Kirol Jokoak. Lekunberriko kiroldegian.

9-10-11 - Martillo Txiki bateria kontzertua. Gabari Gune Irekian.

12 - Araxes Ikastetxearen 50. urteurren festa. Araxes ikastetxean, Betelun.

13 - Mendialdeko Azoka Ibiltaria, Betelun.

16 - Santa Engrazia Eguna, Uitzin.

19 - Nafar artisau produktuen azoka, Lekunberri.

22-25 - Bazko Asteko Ludoteka, Lekunberri.

23 - Liburuaren Eguna.

26 - Lekunberriko Kintoak.

27 - Tutture Mendi Taldearen irteera. Etapa 4.- Bortzi-riako Itzulia Eskisaroi Muinoa - Zentinela - Arxuria - Lizarrietako Mendatea.

MAIATZA

11 - Herri Urrats.

**serigrafia
diseinua
estanzazioa**

kaixo@gko.eus 608 228 234

**tanatorios
IRACHE
Betidanik**

**ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA**

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es



BIDEGOXO JATETXEA

*Jaumartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
**948 50 43 31
Lekunberri**

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Granja Martineke GINTZA Nafarra
Ida. 649 877 057 • faxa: 649 513 057
info@malloak.com

Mailope aldizkariaren banaketa prozesuan arazo bat izan da

Mailope lan taldeak barkamena eskatu nahi dugu M333 aldizkariaren banaketan akats batek eragin dituen eragozpenengatik. Zehazki, Lekunberriko eta Beteluko etxebizitza batzuetara ez baita aldizkaria iritsi. Eragindako deserosotasunengatik, berriro ere, barkamena eskatzen dugu. > Aldizkaria online ikusi nahi baduzu, sar zaitez <https://mailope.eus/> web orrialdean.

Mailope lan taldea



EMAN IZENA!



2025eko Maiatzaren 15etik 25era

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

